


ISEI - IVEI

**T6. ETENGABEKO IKASKUNTZAKO
PARTAIDETZA**





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Edizioa: 2020ko martxo

© ISEI•IVEI-k argitaratua

ISEI•IVEI-K ARGITARATUA

Irakas-sistema Ebaluatuta eta Ikertze Erakundea

Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo

Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net



Sarrera	4
T6.1 taula eta grafikoa: Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak.	6
T6.2 taula: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.	7
T6.2 grafikoa: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2010 eta 2019 urteak.	8
T6.3. taula eta grafikoa: Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019 urtea.	9
T6.4 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.	10
T6.4 grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. 2010 eta 2019urteak.	11
T6.5 taula: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019. urtea.	12
T6.5 grafikoa: Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019. urtea.	13



INKESTAREN AURREKO LAU ASTEETAN PRESTAKUNTZA EDO HEZKUNTZA-JARDUERETAN¹ PARTE HARTU DUEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA.

Europar Batasunaren helburua 2020. urterako: Europar Batasunean prestakuntza iraunkorreko partaidetza-maila batez beste lan egiteko adinean (25-64 urte) dagoen biztanleriaren % 15era gutxienez heltzea.

Bizitzako aldi jakin bati lotutako –gehienetan gaztaroari mugatutako– prestakuntzaren kontzeptuak lekua utzi dio bizitza osoan zehar gauzatzen den prestakuntzaren kontzeptu zabalagoari.

Europako Batzordeak 2000. urtetik aurrera helburutzat hartu zuen ikaskuntza iraunkorreko partaidetza handitzea. Honela definitu zuen ikaskuntza iraunkorra: “bizitzan zehar norberaren, hiritarren, gizartearen eta enpleguaren ikuspuntutik ezagupenak hobetzeko asmoz gauzatzen den edozein ikaskuntza-jarduera” (Batzordearen jakinarazpena: “Etengabeko ikaskuntzako europar gune bat errealitate bihurtu”, 2001).

2019an, Euskadin 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen % 13,0k ikasketa-motaren bat edo prestakuntza-ikastaroren bat egiten zuen inkesta egin aurreko lau asteetan. Sexuaren arabera, emakumeek (% 14,6) gizonek (% 11,3) baino 3,2 puntu gehiago parte hartzen dute prestakuntza-jardueretan.

Euskadiko batez besteko datua, 2005-2019 aldian, % 13,1ekoa da. 2016an % 11,7koa izan zen eta 2012an % 13,9koa, eta tarte horretan ibili da beti. Hau da, nahiko egonkor mantendu da, eta horrek pentsarazten du zaila izango dela 2020. urterako helburu gisa proposatutako % 15era iristea. 2005 urtetik (% 12,9) 2019.era (% 13,0) izandako bilakaera hamarren 1 igo da. Aldi horretan, emakumeek, batez beste, gizonek baino 3 puntu gehiago parte hartu dute prestakuntza-jardueretan.

Espainia, 2005 (% 10,8) eta 2019 (% 10,6) artean, 2 hamarren jaitsi da. Krisi ekonomikoaren urteak dira ehunekorik handienak erakusten dituztenak. Partaidetza-ehuneko handiena 2013an izan zen (% 11,4), eta partaidetza-ehuneko txikiena 2016an (% 9,4). 2019. urtean, ehuneko handienak dituzten erkidegoak Nafarroa eta Euskadi dira, biak % 13rekin. Ehunekorik txikienak dituzten erkidegoak Asturias (% 8,7) eta Gaztela-Mantxa (% 9,1) dira.

2019an, emakumeek prestakuntza-jardueretan duten partaidetzaren ehunekoa handiagoa da gizonena baino erkidego guztietan, Melillan izan ezik.

2019an, emakumeen eta gizonen artean alderik handiena duten erkidegoak Ceuta (5,2 puntu) eta Extremadura (4,8 puntu) dira; horietan, emakumeek gizonek baino gehiago

¹ Honela definitzen da: elkarrizketa egin aurreko lau asteetan hezkuntzan edo prestakuntzan parte hartu duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa. Eurostatek ezarritako metodologiarekin kalkulatu, hiruhileko datuen urteko batez bestekoetan oinarrituta. Espainiako HHEn erabilitako metodologian ez bezala, oporretako ikasleek ez dute hezkuntzan parte hartzen (alde horrek 2019ko datuei baino ez die eragiten).



parte hartzen dute prestakuntza-jardueretan, inkesta egin aurreko lau asteetan. 2019an, Nafarroako (% 14,9) eta Euskadiko (% 14,6) emakumeak dira prestakuntza-jardueretan parte hartzeko Europako helburua (% 15) lortzetik hurbilen daudenak.

2019an, Europar Batasunak 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen % 11,2 zituen, batez beste, 28 herrialde guztietarako ikasketa edo prestakuntza-ikastaroren bat egiten. 2010etik 2019ra bitarteko bilakaera aztertuz gero, ikusten da denboran % 10,4 inguru egonkortutako datua dela, eta horrek adierazten du ez dela posible 2020an % 15eko helburura iristea. 2019an, EB osatzen duten herrialde guztietatik 14 herrialdek % 10etik beherako ehunekoak zituzten. Herrialdeen arteko aldeak nabarmenak dira; izan ere, Errumania (% 1,2), Bulgaria (% 2,0) eta Kroazia (% 3,4) bezalako herrialdeekin batera, beste herrialde batzuk ere badaude, hala nola Suedia (% 34,1), Finlandia (% 28,6) eta Danimarka (% 24,8).

Europar Batasuneko 28 herrialdeen artean, Suedia, Finlandia, Herbehereak eta Danimarka dira 2010-2019 hamarkada osoan helburua modu egonkorrean gainditzen duten prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten lau herrialde bakarrak. 2019an, 28 herrialdeetatik zazpik baino ez dute helburua lortu edo gainditu.

2019an, Europar Batasuneko batez bestekoa (% 11,2) Espainiako batez bestekoa (% 10,5) baino 7 hamarren handiagoa zen, eta Euskadiko batez bestekoa (% 13,0) baino 1,8 puntu txikiagoa.

Sexuaren aldagaia aztertuz gero, ikusten da 2019an Europar Batasuneko herrialde hauek dutela alderik handiena emakumeen aldeko partaidetza-ehunekoetan: Suediak (16,3 puntu), Danimarkak (9,3 puntu), Finlandiak (8,0 puntu) eta Estoniak (6,5 puntu). Herrialde horietan guztietan bat datoz beren prestakuntza-ehunekoak ere altuenak direla. Europar Batasuneko herrialde gehienetan ia ez dago sexuan oinarritutako desberdintasunik. Prestakuntza-jardueretan gizonek emakumeek baino gehiago parte hartzen duten herrialdeak Alemania (% 0,4), Luxenburgo (% 1,5) eta Errumania (% 0,1) dira. Txekiar Errepublika da etengabeko prestakuntzan parte hartzen duten emakumeen eta gizonen ehunekoa berdina duen herrialde bakarra (% 8,2).




T6.1 taula eta grafikoa:

Hezkuntza edo prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera. Orokorra eta sexuaren arabera. Euskadiko datuak².

Urtea	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
2005	12,9	10,8	15,0	4,1
2006	12,8	11,5	14,2	2,7
2007	13,6	12,5	14,7	2,3
2008	13,7	12,1	15,3	3,2
2009	13,6	11,6	15,6	4,0
2010	13,3	11,5	15,1	3,6
2011	13,2	11,1	15,4	4,3
2012	13,9	11,8	15,9	4,1
2013	13,6	12,7	14,6	1,9
2014	11,9	10,7	13,1	2,4
2015	12,9	12,1	13,7	1,6
2016	11,7	10,8	12,7	1,8
2017	13,2	11,6	14,7	3,0
2018	12,7	11,5	13,8	2,4
2019	13,0	11,3	14,6	3,2

¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute.



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (ein) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.

² Serie-haustura: 2005 eta 2014 urteak. 2014ko haustura CNED-2014 berriaren aplikazioari zor zaio, hau da, CINE-2011ren egokitzapenari. Haren eragina nahiko garrantzitsua da, eta, beraz, 2014ko eta ondorengo urteetako datuak ezin dira aurreko urteetakoekin alderatu.



T6.2 taula:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera autonomia erkidegoetan.

	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Espainia	10,8	11,2	11,2	11,2	11,4	10,1	9,9	9,4	9,9	10,5	10,6
Andaluzia	9,7	10,5	10,3	10,3	10,1	9,1	9,2	8,7	8,6	9,0	9,6
Aragoi	11,7	12,0	12,9	12,6	12,5	11,1	11,2	11,4	12,1	12,1	9,7
Asturias, Printzerria	8,9	9,1	10,1	9,5	9,9	8,8	8,9	8,4	9,0	8,6	8,7
Balear Uharteak	9,6	10,3	10,6	10,6	10,2	8,3	9,3	8,7	8,6	10,1	10,6
Kanariak	11,9	12,2	11,2	11,3	11,6	9,7	8,9	8,4	9,2	10,0	10,0
Kantabria	9,9	8,6	9,0	9,7	10,5	9,2	10,7	9,0	10,7	11,6	11,3
Gaztela eta Leon	11,8	11,3	11,6	11,5	11,7	10,9	10,8	9,6	9,8	10,4	10,9
Gaztela-Mantxa	8,7	10,6	9,9	9,9	10,7	10,5	9,6	8,9	9,2	9,1	9,1
Katalunia	10,4	10,3	9,4	9,0	9,5	8,3	7,6	7,4	7,7	8,8	9,3
Valentziako Erkidegoa	10,7	12,1	12,0	13,1	13,4	11,7	11,4	10,8	11,6	12,5	12,4
Extremadura	9,7	10,3	11,3	10,4	10,2	9,2	9,5	9,1	9,3	10,2	10,2
Galizia	10,6	10,8	11,0	10,5	10,4	10,0	10,1	9,2	9,4	10,4	10,8
Madril	12,5	11,9	13,1	13,0	13,5	11,8	11,1	10,8	11,5	12,1	11,8
Murtzia	8,9	11,0	11,0	11,1	11,9	10,8	9,9	10,1	11,5	12,2	12,2
Nafarroa	12,4	13,5	13,9	13,3	13,2	11,3	12,2	11,8	11,2	12,2	13,0
Euskadi	12,9	13,3	13,2	13,9	13,6	11,9	12,9	11,7	13,2	12,7	13,0
Errioxa	10,6	11,4	10,8	11,7	12,7	10,6	9,8	9,8	9,8	10,7	10,6
Ceuta (3)	13,3	12,7	13,1	12,5	10,6	8,2	11,5	10,1	9,7	9,2	11,0
Melilla (3)	13,2	11,9	15,8	10,1	6,3	9,1	9,7	7,4	12,2	14,3	12,4

3) Datuak arretaz hartu behar dira, laginketa-tamaina txikietako deribatuek laginketa-akats handiak baitituzte.


Serie-haustura: 2005. eta 2014. urteak. 2014ko haustura CNED-2014 berriaren aplikazioari zor zaio, hau da, CINE-2011ren egokitzapenari. Haren eragina nahiko garrantzitsua da, eta, beraz, 2014ko datuak ezin dira alderatu aurreko urteetakoekin.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (ein) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.



T6.2 grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2010 eta 2019 urteak.



Handienetik txikienera ordenatua, "2019. urtea" erreferentziatzen harturik.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (ein) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta Lanbide Heziketakako Ministerioa.




T6.3. taula eta grafikoa:

Prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa autonomia erkidegoetan. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019 urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
Espainia	10,6	9,5	11,7	2,2
Andaluzia	9,6	9,1	10,0	0,9
Aragoi	9,7	8,6	10,8	2,2
Asturias, Printzerria	8,7	7,8	9,7	1,9
Balear Uharteak	10,6	9,5	11,8	2,4
Kanariak	10,0	8,0	12,0	4,0
Kantabria	11,3	9,5	13,1	3,6
Gaztela eta Leon	10,9	9,1	12,7	3,5
Gaztela-Mantxa	9,1	8,4	9,9	1,5
Katalunia	9,3	7,8	10,8	3,0
Valentziako Erkidegoa	12,4	11,0	13,8	2,8
Extremadura	10,2	7,8	12,7	4,8
Galizia	10,8	9,6	12,0	2,4
Madril	11,8	11,5	12,1	0,6
Murtzia	12,2	11,5	13,0	1,5
Nafarroa	13,0	11,2	14,9	3,7
Euskadi	13,0	11,3	14,6	3,2
Errioxa	10,6	9,0	12,2	3,2
Ceuta (3)	11,0	8,5	13,7	5,2
Melilla (3)	12,4	12,4	12,3	-0,1

¹Balio positiboek adierazten dute emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dutela prestakuntza-jardueretan.
3) Datuak arretaz hartu behar dira, laginketa-tamaina txikiak txikiak deribatuek laginketa-akats handiak baitituzte.



Handienetik txikienera "Guztira" irizpidearen arabera ordenatua.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako (ein) hezkuntza-aldagaien ustiapena. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa.



T6.4 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera.

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
EB (27 herrialde)	7,8	8,1	8,2	9,9 b	10,1	10,1	10,3	10,4	10,7	10,7 p
EB (28 herrialde)	9,3	9,1	9,2	10,7 b	10,8	10,7	10,8	10,9	11,1	11,2 p
Belgika	7,4	7,4	6,9	6,9	7,4	6,9	7,0	8,5 b	8,5	8,3 p
Bulgaria	1,6	1,6	1,7	2,0	2,1	2,0	2,2	2,3	2,5	2,0 p
Txekiar Errepublika	7,8	11,6 b	11,1	10,0 b	9,6	8,5	8,8	9,8	8,5	8,2 p
Danimarka	32,7	32,3	31,6	31,5	31,9	31,5	28,0 b	26,9 b	23,5	24,8 p
Alemania	7,8 b	7,9	7,9	7,9	8,0	8,1	8,5	8,4	8,2	8,2 p
Estonia	11,0	11,9	12,8	12,6	11,6	12,4	15,7	17,2	19,7	20,0 p
Irlanda	7,1	7,2	7,5	7,6	7,0	6,5	6,5	9,0 b	12,5	12,2 p
Grezia	3,3	2,8	3,3	3,2	3,2	3,3	4,0	4,5	4,5	4,0 p
Espainia	11,2	11,2	11,2	11,4	10,1 b	9,9	9,4	9,9	10,5	10,5 p
Frantzia	5,0	5,5	5,7	17,8 b	18,4 b	18,6	18,8	18,7	18,6	19,0 p
Kroazia	3,0	3,1	3,3	3,1	2,8	3,1	3,0	2,3	2,9	3,4 p
Italia	6,2	5,7	6,6	6,2	8,1	7,3	8,3	7,9	8,1	7,9 p
Zipre	8,1	7,8	7,7	7,2	7,1	7,5	6,9	6,9	6,7	6,2 p
Letonia	5,4	5,4	7,2	6,8	5,6	5,7	7,3	7,5	6,7	7,0 p
Lituania	4,4	6,0	5,4	5,9	5,1	5,8	6,0	5,9	6,6	6,9 p
Luxemburg	13,5	13,9	14,2	14,6	14,5	18,0 b	16,8	17,2	18,0	18,6 p
Hungaria	3,0	3,0	2,9	3,2	3,3	7,1 b	6,3	6,2	6,0	6,0 p
Malta	6,2	6,6	7,2	7,7	7,7	7,4	7,8	10,6 b	10,9	12,3 p
Herbehere	17,0	17,1 b	16,9	17,9 b	18,3	18,9	18,8	19,1	19,1	19,2 p
Austria	13,8	13,5	14,2	14,1	14,3	14,4	14,9	15,8	15,1	14,8 p
Polonia	5,2 b	4,4	4,5	4,3 b	4,0	3,5	3,7	4,0	5,7 b	4,9 p
Portugal	5,7	11,5 b	10,5	9,7	9,6	9,7	9,6	9,8	10,3	10,3 p
Errumania	1,4 b	1,6	1,4	2,0	1,5	1,3	1,2	1,1	0,9	1,2 p
Eslovenia	16,4	16,0	13,8	12,5	12,1	11,9	11,6	12,0	11,4	11,1 p
Eslovakia	3,1	4,1 b	3,2	3,1	3,1	3,1	2,9	3,4	4,0	3,6 p
Finlandia	23,0	23,8	24,5	24,9	25,1	25,4	26,4	27,4	28,5	28,6 p
Suedia	24,7	25,3	27,0	28,4	29,2	29,4	29,6	30,4	31,4 b	34,1 p
Erresuma Batua	20,1	16,3	16,3	16,6	16,3	15,7	14,4	14,3	14,6	14,6 p
Euskadi	13,3	13,2	13,9	13,6	11,9 b	12,9	11,7	13,2	12,7	13,0

(b) Seriearen haustura. (p) Behin-behineko datua.


* Euskadirako, INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT,



T6.4: grafikoa:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. 2010. eta 2019. urteak.



Handienetik txikienera "2019.urtea" irizpidearen arabera ordenatua.

* Euskadirako, INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT,



T6.5 taula:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019. urtea.

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Aldea ¹
EB (27 herrialde)	10,7	9,6	11,7	2,1
EB (28 herrialde)	11,2	10,1	12,3	2,2
Belgika	8,3	7,8	8,7	0,9
Bulgaria	2,0	1,8	2,2	0,4
Txekiar Errepublika	8,2	8,2	8,2	0,0
Danimarka	24,8	20,2	29,5	9,3
Alemania	8,2	8,4	8,0	-0,4
Estonia	20,0	16,8	23,3	6,5
Irlanda	12,2	10,3	14,1	3,8
Grezia	4,0	3,7	4,3	0,6
Espainia	10,5	9,4	11,6	2,2
Frantzia	19,0	16,3	21,7	5,4
Kroazia	3,4	3,0	3,7	0,7
Italia	7,9	7,4	8,4	1,0
Zipre	6,2	5,9	6,5	0,6
Letonia	7,0	5,0	8,8	3,8
Lituania	6,9	5,5	8,3	2,8
Luxemburg	18,6	19,4	17,9	-1,5
Hungaria	6,0	5,8	6,1	0,3
Malta	12,3	11,2	13,5	2,3
Herbehere	19,2	18,3	20,2	1,9
Austria	14,8	13,3	16,4	3,1
Polonia	4,9	4,2	5,5	1,3
Portugal	10,3	10,2	10,4	0,2
Errumania	1,2	1,2	1,1	-0,1
Eslovenia	11,1	9,4	12,8	3,4
Eslovakia	3,6	3,6	3,7	0,1
Finlandia	28,6	24,6	32,6	8,0
Suedia	34,1	26,1	42,4	16,3
Erresuma Batua	14,6	13,1	16,1	3,0
Euskadi*	13,0	11,3	14,6	3,2


¹Balio positiboek emakumezkoek prestakuntza jardueretan gizonezkoek baino proportzio handiagoan parte hartzen dutela adierazten dute. * Euskadirako, INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT,



T6.5 grafikoa:

Europar Batasuneko herrialdeetan prestakuntza jardueretan parte hartu duen 25-64 urteko biztanleriaren ehunekoa. Orokorra eta sexuaren arabera. 2019. urtea.



Handienetik txikienera "Guztira" irizpidearen arabera ordenatua.
* Euskadirako, INEren datuak.

Iturria: EUROSTAT,